


# 1.- KROMAÑON EUSKALDUNA



Asi daigun idaz-lanen zerrenda barri bat. Edestia izango da, baiña beti aurrean argazki bat dauala eta beti euskaldunakaz zeozetan zer-ikusia daukana, naizta liburu oso erdeldun batetik artuak izan.

Gure aurretikoak, edestiaren aurrean bizi ziranak, ingurua izoztuta egoalako leizetan bizi ziran. Berbetan apur bat ba-ekien eta zalantza bagerik euskeraz berba egiten eben, baiña guk ez geuntsen ulertuko, lenengo milla-urteetan beintzat.

Olako leizak aurkitzeko iru tokitara batez be bergiratu bear dogu: Iparraldean Laskaux'era, Bizkaia'n Santimamiñe'ra eta sartaldean Altamira'ra.

Guk Altamira'ra begiratu dogu gaur.

Millaka urteetan bizi izan ziran gure aurretikoak olako leizetan, orain 30.000 urte asi eta orain 10.000-bat urtera arte. Arri-aro zarra edo "paleolitiko" deritxo giro orreri.

Euren janariak arraiña, eizakiak, eta basoko landaren frutu batzuk ziran, leizen sarreretan agertzen diran ondakin-moltzoak adierazten dabenez.

Baiña euren lanik arrigarriena leiza orreitan ikusi daitekezan margazkiak dira. Ederto margoztuta, margo arrigarriakaz, agertzen dira aldi aretako piztiak, iñoz gizakiak be bai, baiña oso gitxitan. Geien agertzen diran piztiak konkordun zezenak (bisonteak) eta zaldiak dira.

Gero giroa gozotu zanean, leizetatik urten eta etxeak egiten asi ziran, apurka-apurka auzoetan alkartu-arte. Geroago auzo orreitan sortuko dira ermitak.

Zertarako egiten ebezan margazki orreik? Dirudianez, uste eben etxean margoztuta eta zaurituta itzi daberen pizkia errezago eizatuko ebela. Orregaitik dagoz margazkiak leizen barru-barruetan, erakusteko ez diralako. Aztikeria edo majia zan ori, orduko erlejiñoa.

Ba-dagoz olako margazkiak erdi-ugarte onen sortaldean be, baiña irudiak ez dira ain gauzakoiak edo realistikak, estilizatuagoak dira, eta an gizakiak ugari agertzen dira eta, gaiñera sarritan, ibilten: eiza egiten, dantzan, arraintzan, basoetan frutuak batzen eta abar.